


Espacios sin humos para la protección de la salud infantil durante la pandemia COVID-19 y para siempre

Kerik gabeko eremuak haurren osasuna babesteko COVID-19aren pandemian zehar eta betiko

I. Astigarraga

Presidenta de la SVN.
Servicio de Pediatría, Hospital Universitario Cruces, Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces Bizkaia. Barakaldo. Departamento de Pediatría, Universidad del País Vasco UPV/EHU. Bizkaia



Itziar Astigarraga Aguirre

En los primeros meses de sufrimiento por la pandemia COVID-19, concretamente en el mes de mayo de 2020 y coincidiendo con la celebración del “Día Mundial sin Tabaco”, la junta de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría decidió adherirse a las iniciativas de la Sociedad Vasco-Navarra de Prevención del Tabaquismo, junto con la Asociación Vasca de Pediatría de Atención Primaria, la Academia de Ciencias Médicas de Bilbao y la mayoría de las sociedades regionales de las diferentes especialidades médicas y otras profesiones sanitarias como farmacéuticos, dentistas, y enfermeras. Todos nos unimos con el lema: “ESPACIOS SIN HUMOS Y SIN COVID” y “ESPACIOS LIBRES DE AEROSOL” (Fig. 1).

COVID-19aren pandemiak eragindako sufrimenduz betetako lehen hilabeteetan, zehazki 2020ko maiatzean, Tabakorik Gabeko Mundu Eguna ospatzen zela eta, Euskadi eta Nafarroako Tabakismoari Aurre Egiteko Elkarteak sustatutako ekimenekin bat egitea erabaki zuen Euskal Herriko Pediatría Elkarteak zuzendaritza-batzordeak, baita Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatría Elkarteak, Bilboko Mediku Zientzien Akademiak eta espezialitate medikoetako elkarte erregional gehienek zein osasunaren arloko beste profesional batzuek ere (farmazialariek, dentistek eta erizainek, besteak beste). Guztiok elkartu ginen lema honen pean: «KERIK ETA COVID-19RIK GABEKO EREMUAK» eta «AEROSOLIK GABEKO EREMUAK» (1. irudia).



Figura 1. Campaña de las sociedades científicas para conseguir “Espacios libres de aerosoles”.

En este grupo de trabajo de sociedades científicas hemos participado en numerosas iniciativas a nivel social para transmitir la evidencia científica sobre la transmisión del virus SARS-CoV-2 a través de aerosoles y del humo, e insistir en que fumar es una acción de alto riesgo de contagio porque obliga a estar sin mascarilla durante varios minutos. También hemos trabajado desde la perspectiva de las políticas del tabaco y la defensa de los derechos humanos, especialmente el derecho a la salud, a la protección frente al enorme efecto dañino producido por el tabaco, y el derecho a que los espacios públicos sean espacios sanos y seguros para todos. A nivel político, como Comité Vasco Navarro de Sociedades Científicas Sanitarias y colegios profesionales de Medicina, Enfermería, Odontología y Farmacia, propusimos diversos cambios en las medidas restrictivas adoptadas frente a la pandemia y solicitamos reuniones a la Comisión de Salud del Parlamento Vasco, pero la respuesta e interés político fue escaso. También nos reunimos con la Dirección de Salud Pública del Departamento de Salud que apoyaba las razones científicas planteadas, pero no disponía de opciones legales para implementar este tipo de medidas, en base a la legislación de Euskadi.

De acuerdo a la misión de la Pediatría definida por la Organización Mundial de la Salud (OMS), de fomentar, proteger y restaurar la salud infantil, la atención pediátrica debe ser integradora de todos los aspectos clínicos, sociales y preventivos. Proteger la salud de los niños, niñas y adolescentes como población vulnerable frente al daño del tabaco, debe ser uno de los retos de todos los profesionales sanitarios dedicados a la salud infantil.

La importancia de la protección frente al tabaco empieza desde la época fetal. El tabaco materno provoca mayor riesgo de prematuridad, menor crecimiento intrauterino y mayor riesgo de complicaciones obstétricas como placenta previa, desprendimiento de placenta, rotura prematura de membranas, etc. Hay muchas razones científicas para organizar campañas de protección de la salud fetal, a través de evitar los tóxicos como el alcohol y tabaco durante el embarazo⁽¹⁾. Durante toda la infancia y adolescencia es necesario evitar la exposición al humo del tabaco en los hogares y espacios públicos, porque está bien demostrado el efecto perjudicial que sufren los fumadores pasivos con un mayor riesgo de infecciones respiratorias, asma y otras patologías⁽²⁾.

Durante la pandemia COVID-19 hemos podido comprobar el beneficio de las mascarillas para la protección frente a la infección por los virus respiratorios. Las medidas adoptadas de salud pública exigían la utilización de mascarillas solo para los mayores de 6 años, por lo que los menores no estaban protegidos, pero se beneficiaron de la menor circulación de virus. En 2020 casi desaparecieron infecciones que se repetían anualmente como la bronquiolitis por VRS o la gripe. Sabiendo que el riesgo de problemas respiratorios provocados por el tabaco es mayor en los lactantes y niños más pequeños, que este grupo de edad no lleva mascarillas y que el humo del tabaco transporta coronavirus, las medidas para limitar el daño del tabaco en este grupo vulnerable son especialmente relevantes.

Las campañas de prevención del tabaquismo en adolescentes necesitan un cambio radical, una apuesta firme de los responsables de Salud

Elkarte zientifikoen lantalde honetan, hainbat ekimenetan parte hartu dugu arlo sozialean, SARS-CoV-2 birusa aerosolen eta kearen bidez transmititzen dela frogatzen duen ebidentzia zientifikoa ezagutzera emateko, eta nabarmentzeko erretzea kutsatzeko arrisku handia duen ekintza bat dela, zenbait minutuz maskararik gabe egotea baitakar. Horrez gainera, tabakoaren politiken eta giza eskubideen defentsaren ikuspegitik egin dugu lan, arreta berezia jarrita osasunerako eskubidean, tabakoak eragindako ondorio kaltegarri larriaren aurrean babesteko eskubidean eta espazio publikoak guztiontzat espazio osasuntsuak eta seguruak izateko eskubidean. Arlo politikoan, Osasun Elkarte Zientifikoen Euskadiko eta Nafarroako Batzordearen eta Medikuntzako, Erizaintzako, Odontologiako eta Farmaziako lanbide-elkargoen izenean, zenbait aldagata proposatu genituen pandemiaren aurrean hartutako neurri murriztaileei dagokienez, eta bilerak eskatu genizkion Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordeari, baina erantzun eta interes politiko eskasa jaso genuen. Halaber, Osasun Saileko Osasun Publikoaren Zuzendaritzakoekin bildu ginen; planteatutako arrazoi zientifikoen alde agertu ziren, baina ez zuten legezko aukerarik halako neurririk ezartzeko, Euskadiko legeria dela eta.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OMERen) definizioaren arabera, pediatriaren misioa da haurren osasuna sustatzea, babestea eta sendatzea; hori dela eta, arreta pediatrikoak alderdi kliniko, sozial eta prebentibo guztiak integratu behar ditu. Haurrak eta nerabeak bereziki kalteberak dira tabakoak eragindako kaltearen aurrean, eta, horregatik, haurren osasunaren arloan lan egiten duten osasun-profesional guztien erronketako bat izan behar da haien osasuna babestea.

Tabakoaren aurkako babesaren garrantzia fetuaren garaitik hasten da. Amaren tabakoak lehenago jaiotzeko arriskua areagotzen du, utero barruko hazkundea murrizten du eta arazo obstetrikokoak izateko arriskua handitzen du, hala nola aurretiko plazenta, plazenta-askatzea, mintzen haustura goiztiarra eta abar. Arrazoi zientifiko ugari daude fetuaren osasuna babesteko kanpainak antolatzeke; babes hori bermatzeko, toxikoak saihestu behar dira haurdunaldian, besteak beste alkohola eta tabakoa⁽¹⁾. Haurtzaroan eta nerabezaroan ezinbestekoa da etxeetan eta espazio publikoetan tabakoaren kea arnasteko arriskua ekiditea, frogatuta baitago erretzaile pasiboentzat duen ondorio kaltegarria: arnas infekzioak, asma eta beste patologia batzuk izateko arrisku handiagoa⁽²⁾.

COVID-19aren pandemian zehar, egiaztatu ahal izan dugu maskarak oso egokiak direla arnas birusek eragindako infekzioetatik babesteko. Osasun publikoaren arloan hartutako neurrien arabera, 6 urtetik gorakoek baino ez zuten erabili behar maskara; beraz, txikiagoak ez zeuden babestuta, baina mesede egin zien birusak gutxiago mugitzea airean. 2020an, ia desagertu egin ziren urtero errepikatzen ziren infekzioak, hala nola VRS birusaren ondoriozko bronkiolitisa edo gripea. Ikusita tabakoak eragindako arnas arazoak izateko arriskua handiagoa dela bularreko haurrengan eta haurrik txikiengand, adin-talde horrek ez duela maskararik jartzen eta tabakoaren keak koronabirusa garraiatzen duela, bereziki garrantzitsuak dira talde kaltebera horretan tabakoaren kaltea mugatzeko neurriak.

Nerabeengan tabakismoa prebenitzeko kanpainen sakoneko aldagata bat behar dute, baita apustu irmo bat ere Osasun Publikoaren arduradunen eta haien osasuna sustatzeaz eta babesteaz arduratzen diren osasun-profesionalen aldetik. Pediatron eta familia-medikuen ardura da bizimodu osasungarriko ohiturak sustatzea, familiekin eta irakasleekin batera. Funtsezkoa da nerabezaroan

Pública y de los profesionales sanitarios dedicados a fomentar y proteger su salud. Los pediatras y los médicos de familia, junto con las familias y profesores, tenemos la responsabilidad de fomentar los hábitos de vida saludables. Evitar el inicio de esta adicción en la adolescencia es crucial. Algunos países como Nueva Zelanda estudian implantar medidas muy restrictivas de acceso al tabaquismo, como la prohibición del tabaco para los nacidos después de 2004 y aspiran a convertirse en un país libre de humos en 2025.

La OMS consideró que la pandemia COVID-19 era una oportunidad para el cese del tabaquismo. En una convención contra el tabaco establecieron la importancia de aumentar la conciencia social sobre el efecto perjudicial del tabaco, visibilizar el gran número de muertes anuales asociadas a este tóxico y mejorar la oferta de servicios sanitarios para dejar de fumar. Durante la pandemia muchos países establecieron medidas de prohibición de fumar en espacios públicos y se endurecieron las políticas de control del tabaco, pero es necesario que las medidas se mantengan de forma permanente para acelerar el progreso hacia un mundo libre de tabaco⁽³⁾.

El tabaquismo es el principal problema de salud a nivel global que podemos modificar entre todos. Por ello, en la SVNPN seguiremos trabajando y planteando propuestas a nivel local para intentar que los gobiernos y responsables de Salud Pública apliquen medidas valientes para proteger la salud de la infancia y adolescencia, evitando los efectos dañinos del tabaco, respetando sus derechos como no fumadores y disfrutando de espacios y terrazas libres de humos. Seguiremos colaborando con otras sociedades e instituciones, en época de pandemia COVID-19 y siempre, como sociedad protectora de los más vulnerables y defensora de los derechos de la infancia, especialmente de su derecho a la salud. Juntos soñamos con un mundo libre de COVID-19 y de tabaco para nuestros pequeños pacientes y sus familias.

adikzio hau saihestea. Herrialde batzuetan —Zeelanda Berrian, adibidez—, tabakismoari aurre egiteko neurri oso murriztaileak ezartzeko aukera aztertzen ari dira, hala nola 2004az geroztik jaiotakoei tabakoa debekatzea, eta 2025erako kerik gabeko herrialdea izatea espero dute.

OMEk tabakismoa gainditzeko aukeratzat jo zuen COVID-19aren pandemia. Tabakoaren aurkako konbentzio batean adierazi zuten garrantzitsua zela tabakoaren ondorio kaltegarriari buruzko kontzientzia soziala areagotzea, toxiko horri lotuta urtero dauden heriotzen kopurua ezagutzera ematea eta erretzeari uzteko osasun-zerbitzuen eskaintza hobetzea. Pandemian zehar, herrialde askok ezarri zituzten espazio publikoetan erretzea debekatzeko neurriak, eta gogortu egin ziren tabakoa kontrolatzeko politikak, baina neurriak modu iraunkorrean mantendu behar dira, tabakorik gabeko mundu bat lortzeko prozesua azkartzeko⁽³⁾.

Tabakismoa osasun-arazo nagusia da orokorrean, eta guztion artean konpondu ahal dugu. Horregatik, EHPEn lanean eta proposamenak egiten jarraituko dugu gobernuek eta Osasun Publikoaren arduradunek neurri ausartak har ditzaten haurren eta nerabeen osasuna babesteko, tabakoaren ondorio kaltegarriak saihestuz, ez-erretzaile gisa dagozkien eskubideak errespetatuz eta kerik gabeko espazio eta terrazaz gozatzeko aukera bermatuz. Beste elkarte eta erakunde batzuekin dugun elkarlanari eutsiko diogu, COVID-19aren pandemian eta beti, kalteberenak zaintzen dituen eta umeen eskubideak —bereziki osasunerako eskubidea— babesten dituen elkarteak. Gure amets partekatua da COVID-19rik eta tabakorik gabeko mundua lortzea gure pazienterik txikientzat eta haien familientzat.

BIBLIOGRAFÍA

1. Leonardi-Bee J, Smyth A, Britton J, Coleman T. Environmental tobacco smoke and fetal health: systematic review and meta-analysis. Arch Dis Child Fetal Neonatal. 2008; 93: 351-61.
2. Schiliro H, Vogel ER, Paolini L, Pabelick CH. Cigarette smoke exposure, pediatric lung disease and COVID-19. Front Physiol. 2021; 12: 652198.
3. Ahluwalia IB, Myers M, Cohen JE. COVID-19 pandemic: an opportunity for tobacco use cessation. Lancet Public Health. 2020; 5: e57.7.